

eta Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketa Araudi Orokorren 131. artikuluan ezarritako modu eta baldintzetan baizik.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko apirilaren 27a.- Derrigorrezko Dirubilketa Agentea, MARIA ISABEL DE ARANA.

en el artículo 131 de la Norma Foral General Tributaria y del Reglamento General de Recaudación del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de abril de 2005.- La Agente Ejecutiva, MARIA ISABEL DE ARANA.

II

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

II

Udalak

AMURRIO

3.039

Iragarkia

2005eko apirilaren 14an eginiko bilkuran Tokiko Gobernu Batzordeak UER A-6 Bizitokiaren Exekuzio Unitatearen Birpartzelazio Proiektuaren testu bategina behin betiko onetsi zuen.

Amurrio, 2005eko apirilaren 27a.- Alkatea, PABLO R. ISASI AGIRRE.

IRUÑA OKA

2.715

Iragarkia

Industria-hondakinak estolderia-sare publikora nola isuri arautzen duen Udal Ordenantzaren hasierako onarpenaren aurka ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu, ordenantza hori 2005eko otsailaren 23ko Arabako Lurralde Historikokoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN (23. zenbakia) argitaratu zenetik. Beraz, behin betiko onartzen da ordenantza, eta jarraian zehazten da, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ezartzen duena betetzeko.

INDUSTRIA-HONDAKINAK ESTOLDERIA-SARE PUBLIKORA NOLA ISURI ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Honako ordenantza honek Iruña Okako udalerrian egiten diren jardueren ondorioz udaleko estolderia-sarera botatzen diren hondakinen isurketa arautzen du.

Ordenantza honen arabera, hauek dira isurketak: manufaktura-erren edo industriaren jardueratik, edo baliabide naturalen garapenetik, berreskuratzeetik edo prozesamendutik ateratzen den hondakin solidoak, pastazkoak, likidoak edo gaseosoak, hozteko urak barne.

2. artikulua.- Ordenantza honetan jasotzen diren arauak honako hauei aplikatuko zaizkie: udalaren estolderia-sarera hondakin-urak isuri ditzaketen instalazioei, establezimenduei, jardueri, industriei edo biltegiei, publikoak zein pribatuak izan, eta titularrak edonork dela ere. Bestalde, gaur egun jarrita daudenei zein etorkizunean jarriko direnei ere aplikatuko zaie, udalaren lurzoru industrialean badaude.

3. artikulua.- Industria-isurketetarako baldintzak eta mugak ezartzen dira ordenantza honetan, honakoak kontuan hartuz: lurzoru industrialeko estolderia-sare publikorako lotura, araztegia, hartzeko ubidea eta azpiproduktuen aprobetxamendu posiblea, bai eta instalazioak mantentzeko langileentzako arriskuak saihestea ere.

4. artikulua.- Era berean, isurketak ateratzeko tresnei, estolderia publikorako sarean hartuneei, eta, oro har, helburu horretarako propio ezarritako instalazioei hirigintza planeamenduan ezarritako arauak edo hirigintzakoak aplikatuko zaizkie, bai eta eragiten dieten sektoreko arautegiak ere.

I. TITULUA.- ISURKETARAKO BALDINTZAK

I. KAPITULUA.- DEBEKATUTAKO ISURKETAK

5. artikulua.- Debeekatuta dago estolderia-sare publikora isurteza hondakin-urak edo beste edonolako hondakin solidoak, orezkoak, likidoak edo gaseosoak, Udalak horretarako baimena eman ez badu,

Ayuntamientos

AMURRIO

3.039

Anuncio

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 14 de abril de 2005, aprobó definitivamente el texto refundido del Proyecto de Reparcelación de la Unidad de Ejecución Residencial UER A-6.

Amurrio, a 27 de abril de 2005.- El Alcalde, PABLO R. ISASI AGIRRE.

IRUÑA DE OCA

2.715

Anuncio

No habiéndose presentado reclamaciones contra la aprobación inicial de la Ordenanza Municipal de Vertidos Industriales a la Red de Alcantarillado público, expuesta al público mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 23 de fecha 23 de febrero 2005, la misma queda aprobada definitivamente, publicándose a continuación la citada ordenanza, a los efectos previstos en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local:

ORDENANZA MUNICIPAL DE VERTIDOS INDUSTRIALES A LA RED DE ALCANTARILLADO PÚBLICO

TÍTULO I.- DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- La presente Ordenanza regula los vertidos residuales a la red municipal de alcantarillado procedentes de las actividades que desarrollan en el término municipal de Iruña de Oca.

A los efectos de la presente Ordenanza, se considerarán vertidos toda materia residual sólida, pastosa, líquida o gaseosa, incluyendo las aguas de refrigeración, resultantes de una actividad manufacturera o industrial o del desarrollo, recuperación o procesamiento de recursos naturales.

Artículo 2.- Las normas contenidas en la presente Ordenanza serán aplicables a todas las instalaciones, establecimientos, actividades, industrias o almacenes, susceptibles de efectuar vertido de aguas residuales a la red de alcantarillado municipal, ya sean públicos o privados, cualquiera que sea su titular, existentes o que en el futuro se establezcan, cuando estén enclavados en suelo industrial municipal, y que se denominarán genéricamente actividades.

Artículo 3.- Se contienen en esta Ordenanza las condiciones y limitaciones de vertidos industriales, teniendo en cuenta su afección a la red de alcantarillado público en suelo industrial, estación depuradora, cauce receptor y el posible aprovechamiento de los subproductos, así como impidiendo la generación de riesgos para el personal encargado del mantenimiento de las instalaciones.

Artículo 4.- Serán asimismo aplicables a los dispositivos de evacuación de vertidos, a las acometidas a la red de alcantarillado público, y en general a las instalaciones establecidas para esta finalidad, tanto las normas contenidas en los instrumentos de planeamiento urbanístico o de urbanización, como las regulaciones sectoriales que les afecten.

TÍTULO II.- CONDICIONES DE LOS VERTIDOS

CAPÍTULO I.- VERTIDOS PROHIBIDOS

Artículo 5.- Queda totalmente prohibido verter directa o indirectamente a la red de alcantarillado público sin previo permiso municipal, aguas residuales o cualquier otro tipo de desechos sólidos,

baldin eta, bakarrik zein beste batzuekin nahastuta, honako ondorio hauetakoren bat sortzen badute estolderia publikoan:

- a) Nahasketa sukoiak edo lehergarriak.
- b) Udalaren estolderia-sareko materialen, instalazioen eta araztegien korrosioa.
- c) Instalazioen garbiketaz, mantentze-lanez edo funtzionamenduaz arduratzen diren langileentzako oztopo izango diren egoera gogaikarri, kaltegarri, toxiko edo arriskutsuak, edo jendearentzako beste edonolako egoera deseroso edo arriskutsuak, eta, bereziki, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Arautegiaren II. eranskinean jasotako gehieneko kontzentrazioa gainditzen duten kolektoreetako gas toxikoak.

d) Ura kolektoreetatik libre pasatzea, garbiketa lanak egitea, estolderia-sarea kontserbatzea edo konpontzea oztopatzen duten sedimentu, txertaketa edo buxadura fisikoak, eta horien artean: errautsa, kedarrak, hareak, buztina, lastoa, txirlora, beira, plastikoa, trapuak, lumak, galipota, egurra, zaborrak, simaurra, pieza metalikoak, animalien hondakinak, ileak, erraiak, baxera, amiantoa, edozein motako edukiontzia eta antzekoak, berdin dio osorik edo birrinduta egon.

6. artikulua.- Debehatuta dago estolderia publikoaren sarera honako produktu hauetako edozein isurtzea:

a) Gasolinak, naftak, petrolioak eta tarteko destilazio produktua (bentzenoa, toluenoa, xilenoa), bai eta urarekin nahasezina den eta erreaga edo sukoa den edozein disolbagarri edo likido organiko ere.

b) Hasieran eman zaien erabilerarako desegoki bihurtu diren olio eta lubrifikatzaile mota guztiak, eta, bereziki, errekuntzako motorretan eta transmisio-sistemetan erabilitako olioak, bai eta olio mineral lubrifikatzaileak, turbinetarako olioak, sistema hidraulikoak eta gainerako emultsioak ere.

c) Beren ezaugarri toxiko edo arriskutsuengatik tratamendu berezia edo aldian aldiko kontrola eskatzen duten hondakinak, ondorio kaltegarriak dituztelako, eta, bereziki, Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen legerian jasotakoak.

d) Hondakin-urek, baldin eta ph-ren balioa 6tik behera edo 10etik gora badute.

e) Disolbagarri organikoak eta margoak, edozein proportziotan eta kopurutan.

f) Kaltzio karburoa eta arriskutsuak izan daitezkeen beste zenbait substantzia solido: hidruroak, peroxidoak, kloratoak, perkloratoak, bromatoak, nitruroak, sulfuroak eta abar.

g) Hondakin, isotopo edo produktu erradioaktiboak, baldin eta abuztuaren 12ko 2.519/82 Errege Dekretuak (erradiazio ionizatzaileen aurkako babesari buruzkoa) eta dekretu hori aldatzen duen 1.753/87 Errege Dekretuak ezartzen dituzten mugak gainditzen badituzte.

II. KAPITULUA. - ONARTUTAKO ISURKETAK

7. artikulua.- Lurzoru industrialean dagoen udal estolderiara honako isuri hauek bota daitezke, jarraian zehazten diren parametro fisiko eta kimikoetarako ezartzen dena gainditzen ez badute:

Parametroa	Muga-unitatea
Temperatura gradu zentigradutan	40
Solido esekiak	.700 mg/l
Solido jalkigarriak	.5 ml/l
pH	6 pH 10
DB05	500 mg/l
DQ0	1000 mg/l
Fenolak	5 mg/l
Detergente anionikoak	10 mg/l
Aldehidoak	4 mg/l
Pestizidak	0,05 mg/l
Kloruroak (Cl)	2000 mg/l
Sulfatoak (SO4)	1000 mg/l
Sulfitoak (SO3)	10 mg/l
Fluoruroak (F-)	10 mg/l
Zianuroak (CN-)	1 mg/l
Aminiakoa (NH3)	10 mg/l
Nitratoak (NO3-)	20 mg/l

pastosos, líquidos o gaseosos que, en razón de su naturaleza, propiedades y cantidad causen o puedan causar, por sí solos o por interacción con otros desechos, alguno o varios de los siguientes efectos sobre la red de alcantarillado público:

- a) Formación de mezclas inflamables o explosivas.
- b) Efectos corrosivos sobre los materiales constituyentes de la red municipal de alcantarillado, sus instalaciones y la estación depuradora.
- c) Creación de condiciones ambientales molestas, nocivas, tóxicas o peligrosas que impidan o dificulten el acceso o la labor del personal encargado de la limpieza, mantenimiento o funcionamiento de las instalaciones, o puedan ocasionar cualquier molestia o peligro público, y en concreto la formación de gases tóxicos en los colectores que superen las concentraciones máximas que se recogen en el Anexo II del Reglamento de Actividades Molestas Insalubres, Nocivas y Peligrosas.

d) Producción de sedimentos, incrustaciones, u otras obstrucciones físicas que dificulten el libre flujo del agua por los colectores, obstaculicen los trabajos de limpieza, conservación y reparación de la red de alcantarillado, tales como cenizas, carbonilla, arena, barro, paja, viruta, vidrio, plásticos, trapos, plumas, alquitrán, madera, basura, estiércol, piezas metálicas, desperdicios de animales, pelo, visceras, piezas de vajilla, amianto, envases de cualquier material y otras análogas, ya sean enteras o trituradas por motivos de desperdicios.

Artículo 6.- Queda prohibido verter a la red de alcantarillado público cualquiera de los siguientes productos:

a) Gasolinak, naftak, petróleoa, y productos intermedios de destilación, benceno, tolueno, xileno y cualquier disolvente o líquido orgánico inmiscible en agua y combustible o inflamable.

b) Todos los tipos de aceites, lubricantes que se hayan vuelto inadecuados para el uso que se les hubiera asignado inicialmente y, en particular, los aceites usados de los motores de combustión y de los sistemas de transmisión, así como los aceites minerales lubricantes, aceites para turbinas, sistemas hidráulicos y otras emulsiones.

c) Residuos que por sus concentraciones o características tóxicas o peligrosas requieran un tratamiento específico o control periódico de sus efectos nocivos potenciales, y en especial los regulados en la legislación de Residuos Tóxicos y Peligrosos.

d) Aguas residuales con un valor de pH inferior a 6 o superior a 10.

e) Disolventes orgánicos y pinturas, cualquiera que sea su proporción y cantidad.

f) Carburo cálcico y otras sustancias sólidas potencialmente peligrosas (hidruros, peróxidos, cloratos, percloratos, bromatos, nitruros, sulfuros, etc.).

g) Desechos, isótopos o productos radiactivos que superen los límites establecidos en el Real Decreto 2.519/82, de 12 de agosto, que aprueba el Reglamento sobre protección sanitaria contra radiaciones ionizantes y en su modificación aprobada por Real Decreto 1.753/87.

CAPÍTULO II.- VERTIDOS TOLERADOS

Artículo 7.- Se permitirá el vertido al alcantarillado municipal en suelo industrial a aquellos efluentes cuyas características no superen lo establecido a continuación para los siguientes parámetros físico-químicos:

Parámetro	Unidad Límite
Temperatura	°C 40
Sólidos en Suspensión	mg/l 700
Sólidos en Sedimentables	ml/l 5
pH	6 pH 10
DB05	mg/l 500
DQ0	mg/l 1000
Fenoles	mg/l 5
Detergentes aniónicos	mg/l 10
Aldehidos	mg/l 4
Pesticidas	mg/l 0,05
Cloruros (Cl-)	mg/l 2000
Sulfatos (SO4=)	mg/l 1000
Sulfitos (SO3=)	mg/l 10
Fluoruros (F-)	mg/l 10
Cianuros (CN-)	mg/l 1
Amoniaco (NH3)	mg/l 10
Nitratos (NO3-)	mg/l 20

Kjeldahl nitrogenoa 20 mg/l
 Fosfatoak (PO₄)₃ 60 mg/l
 Aluminioa (Al) 10 mg/l
 Arsenikoa (As) 1 mg/l
 Barioa (Ba) 20 mg/l
 Boroa (B) 3 mg/l
 Kadmioa (Cd) 0,2 mg/l
 Kobaltoa (Co) 0,2 mg/l
 Kobrea (Cu) 0,5 mg/l
 Kromo totala (Cr) 5 mg/l
 Kromo hex. (Cr₆) 0,5 mg/l
 Burdina (Fe) 10 mg/l
 Manganesoa (Mn) 2 mg/l
 Merkurioa (Hg) 0,05 mg/l
 Molibdenoa (Mo) 0,02 mg/l
 Nikela (Ni) 2 mg/l
 Beruna (Pb) 0,7 mg/l
 Selenioa (Se) 0,5 mg/l
 Eztainua (Sn) 10 mg/l
 Zinka (Zn) 5 mg/l
 Sulfuroak 10 mg/l
 Olioak eta koipeak 100 mg/l

Metalentzako mugak metal totalenak izango dira, eta ez metal disolbatuenak.

8. artikulua.- Isurketa-maila erregularra eta etengabea bermatzeko, debekatuta daude aldian aldiko isurketak, edo bat batekoak, baldin eta horien kontzentrazioak edo emariak lanegun baten barruan egiten den isurketaren kontzentrazioa edo emaria bost bider baino gehiago gairatzen badu hamabost minuturen buruan.

Hori beharrezkoa denean, eta honako artikulua ezartzen duena betetzeko, homogeneizatzeko eta neutralizatzeko aurretratamenduak ezarri beharko dira, eta batez ere erregulazio-biltegiak.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoak ez die eragingo ordenantza honetan jasotzen diren gainerako betebeharrak.

III. KAPITULUA.- ISURKETA EZOHKOAK

9. artikulua.- Beharrezkoa izango da zenbait neurri hartzea, ordenantza honetan ezartzen dena betetzen ez duten isurketak saihesteko.

Larrialdi egoeraren bat gertatuko balitz, edo ohikoa ez den isurketa gertatzeko arriskua, jardueraren titularrak Iruña Okako Udalarari eman behar dio horren berri lehenbailehen, instalazio publikoen eta hartzeko ubidearen babeserako beharrezko neurriak har daitezten. Horren ondoren, Udalak txosten zehatz bat emango du, eta honako datu hauek jasoko dira bertan:

- Isurketaren ezaugarri fisikoak eta kimikoak.
- Isurketaren bolumena.
- Iraupena.
- Hustuketa gertatu den tokia.
- Hustuketaren arrazoiak.
- Hartutako neurri zuzentzaileak, etorkizunean gerta ez dadin.

Udalak larrialdi-egoeraren edo arriskuaren arrazoiak aztertuko ditu; horretaz gain, jardueraren titularrari erantzukizuna eska dakioke gertatutakoaz.

III. TITULUA.- ISURKETARAKO BAIMENA

I. KAPITULUA.- JARDUERA BERRIETARAKO BAIMENAK

10. artikulua.- Jarduera abian jartzeko lortu beharreko udal baimenaren menpe egongo da udal-estolderiara isurtzeko baimena, eta ordenantza honetan jasotzen dena betetzen dela dioen kontrolaren menpe.

Hori horrela, GOKAREN eraginpean dauden jarduerak instalatzeko, azterlan bat aurkeztu beharko da; bertan, uraren isurketak ordenantza honetan jasotzen diren baldintzak bete ditzan, zein neurri zuzentzaile hartu diren adieraziko da. Azterlan horrek honakoa jasoko du, gutxienez:

- a) Uraren erabilera industrial.

Epigrafe horren azpian, uraren erabilera industrial bakoitza zehaztu beharko da, eta gutxienez.

1. Erabilera bakoitzerako uraren fluxuaren diagrama.
2. Erabilitako ur-emaria.
3. Ur-emariaren ezaugarri fisikoak eta kimikoak.

Nitrógeno total Kjeldahl mg/l 20
 Fosfatos (PO₄)₃ mg/l 60
 Aluminio (Al) mg/l 10
 Arsénico (As) mg/l 1
 Bario (Ba) mg/l 20
 Boro (B) mg/l 3
 Cadmio (Cd) mg/l 0,2
 Cobalto (Co) mg/l 0,2
 Cobre (Cu) mg/l 0,5
 Cromo total (Cr) mg/l 5
 Cromo hexav. (Cr₆) mg/l 0,5
 Hierro (Fe) mg/l 10
 Manganeso (Mn) mg/l 2
 Mercurio (Hg) mg/l 0,05
 Molibdeno (Mo) mg/l 0,02
 Níquel (Ni) mg/l 2
 Plomo (Pb) mg/l 0,7
 Selenio (Se) mg/l 0,5
 Estaño (Sn) mg/l 10
 Zinc (Zn) mg/l 5
 Sulfuros mg/l 10
 Aceites y grasas mg/l 100

Los límites para los metales se entenderán como metales totales y no como metales disueltos.

Artículo 8.- Con el fin de garantizar un régimen de vertidos regular y continuo quedan prohibidos aquellos vertidos periódicos o espontáneos cuya concentración o cuyo caudal excedan durante un plazo de quince minutos en más de cinco veces el promedio de la concentración o caudal vertido durante la jornada laboral.

Quando ello resulte necesario para el cumplimiento del presente artículo deberán instalarse pretratamientos de homogeneización y neutralización, y en particular depósitos de regulación.

Lo dispuesto en los apartados anteriores no afectaría al necesario respeto de las demás exigencias contenidas en esta Ordenanza.

CAPÍTULO III.- VERTIDOS ATÍPICOS

Artículo 9.- Será obligatoria la adopción de medidas adecuadas para evitar las descargas accidentales de vertidos que infrinjan lo establecido en la presente ordenanza.

Si se produjera una situación de emergencia o un riesgo inminente de producirse un vertido inusual el titular de la actividad comunicará al Ayuntamiento de Iruña de Oca tal circunstancia inmediatamente a fin de adoptar las medidas oportunas de protección de las instalaciones públicas y del cauce receptor. Seguidamente remitirá al Ayuntamiento un informe detallado en el que se contendrán los siguientes datos:

- Características físico-químicas del vertido.
- Volumen del vertido.
- Duración.
- Lugar de la descarga.
- Causas que lo originaron.
- Medidas adoptadas y correcciones para evitar su reproducción en el futuro.

El Ayuntamiento investigará las causas que motivaron la situación de emergencia o de riesgo, y ello sin perjuicio de las responsabilidades en que hubiera incurrido el titular de la actividad.

TÍTULO III.- PERMISOS DE VERTIDO

CAPÍTULO I.- AUTORIZACIONES DE NUEVAS INSTALACIONES

Artículo 10.- La concesión de permisos de vertidos a la red de alcantarillado público estará condicionada a la obtención de licencia municipal de instalación a la actividad de que se trate y al control preventivo del cumplimiento de la presente Ordenanza.

A tal fin, en los proyectos de instalación de actividades afectadas por el R.A.M.I.N.P. se acompañará un estudio justificativo sobre las medidas correctoras previstas para que las aguas del proceso cumplan lo estipulado en la presente Ordenanza. Dicho estudio contendrá al menos:

- a) Usos industriales del agua.

Bajo este epigrafe habrán de reflejarse, como mínimo, cada uno de los distintos usos industriales del agua:

1. Diagrama de flujo del agua para cada uso.
2. Caudal empleado.
3. Características físico-químicas de éste.

4. Saneamenduarekin edo instalazio zuzentzailearekin egindako loturagunea, planoan adierazitakoa.

b) Aplikatu diren neurri zuzentzaileak.

Neurri horiek beti justifikatuko dira, jardueraren instalazioan erabili diren ur-emari guztien ezaugarriek ordenantza honetako 7. artikuluan ezartzen diren onartutako mugak betetzen ez badituzte.

Justifikazio horrek honako atal hauek izango ditu, gutxienez:

1. Ikuskapenaren akta egin beharko da, eta ikuskatzailea eta ikuskapenaren arduraduna izango dira aktaren sinatzaileak; informazioa, bestalde, bisiten erregistro-liburuan jasoko da.

11. artikulua.- Estolderia publikoaren sarera isurketak egiteko, lehenago establezimendua aztertu beharko da, eta instalazio-proiektuan (edo instalazioaren baimenean) jasotzen ziren neurri zuzentzaileen eraginkortasuna ikusi. Horretarako, irekiera-baimena eduki beharko da, edo abian jartzeko baimena.

12. artikulua.- Isurtzeko baimena behin-behinekoa izan daiteke, isurketak etorkizunean aztertu beharra balu edo instalazioen funtzionamendua ikuskatu beharrik balego. Horrelako kasuetan, azterketarako edo ikuskapenerako data jarriko da, eta, hori bukatutakoan, interesdunak behin betiko baimena eskatuko du. Adierazitako epe horretan, uraren hornidurarako behin-behineko baimenak eman daitezke.

13. artikulua.- Isurketak egiteko behin betiko baimena beharrezkoa izango da uraren hornidurarako kontratuak izenpetzeko.

II. KAPITULUA.- JARRITA DAUDEN INSTALAZIOAK

14. artikulua.- Ordenantza hau indarrean sartzen denean abian dauden instalazioak edo baimena dutenak bertan jasotzen diren mugetara eta baldintzetara egokitu beharko dute 6 hilabeteren buruan; epe hori, hala ere, beste 6 hilabetez luza daiteke, egokitze-proiektua aurkeztu bada eta hori justifikatzen duten arrazioak baldin badaude.

Epe horretan aurretik onartutako arautegian jasotzen ziren mugak errespetatu beharko dira.

15. artikulua.- Aurreko artikuluan jasotzen diren jarduerak ez dute eskatu beharko isurketa-baimenik, funtzionamendurako baimena badute, eta honako hau jasotzen duen azterketa aurkezten badute Udalean, sei hilabeteren buruan: ur-emaria eta horren erregimena, ordenantza honetan ezartzen diren mugen barruan dauden substantzien kontzentrazioa eta ezaugarriak, bai eta ordenantza honetan jasotzen diren xedapenetara egokitzeko hartu diren neurri zuzentzaileak ere, 10. artikulua adierazten duen bezala.

III. KAPITULUA.- INSTALAZIOAK ALDATZEA

16. artikulua.- Dauden instalazioak ezin izango dira handitu edo aldatu, moldaketa horietan instalazio berrietarako ezartzen diren arauak errespetatzen ez badira.

17. artikulua.- Instalazioaren titularrak lehengaietan, makinerian, produkzio-prozesuan, araztegi-sisteman edo saneamenduan edozein motatako aldaketa egin nahi izango balu, eta horrek lurzoru industrialean dagoen estolderia-sarearen isurketan nolabaiteko eraginik balu, Udalarik eman beharko dio horren berri, erakunde horrek baimena eman diezaion, edo, bestela, dagozkion zuzenketak proposa ditzan.

18. artikulua.- Edonola ere, Udalak beti eska diezairoke jarritako jarduera bati antzemandako akatsak zuzentzeko, ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzeko.

IV. TITULUA.- ISURKETEN KONTROLA

I. KAPITULUA.- ISURKETAK IKUSKATZEA

19. artikulua.- Estolderia-sare publikora isurketak egiten dituzten jardueren aldiak ikuskapenak egingo ditu Udalak, bere kabuz edo interesdunek hala eskatuta, berak dituen ikuskatzaile zerbitzuen bitartez.

Ikuskatzaileak eta jagoletzak isurketaren kalitateari eragiten dion jardueren instalazioa aztertuko du, eta, bereziki, honako hauek: erregistroko kutxetak, saneamendu-hoditeriak, isurketen prozesuak eta aurretratamendurako lantegiak edo uren arazketarakoak.

4. Punto de conexión con el saneamiento o con la instalación correctora, señalado en plano de planta.

b) Medidas correctoras aplicadas.

Se justificarán siempre que las características del total de los caudales empleados en las instalaciones objeto del proyecto de actividad, no cumplan los límites tolerados relacionados en el artículo 7 de la presente Ordenanza.

Dicha justificación contendrá, al menos, los siguientes apartados:

1. De la inspección se levantará acta que firmarán el inspector y la persona responsable de la actividad en el momento de realizarse la inspección y se hará constar en el libro registro de visitas.

Artículo 11.- La autorización del vertido a la red de alcantarillado público estará condicionada a la comprobación del establecimiento y eficacia de las medidas correctoras contenidas en el proyecto de instalación o fijadas en la licencia de instalación para lo que deberá disponerse de licencia de apertura o autorización de puesta en marcha.

Artículo 12.- La autorización de vertido podrá tener carácter provisional cuando por la naturaleza del vertido se precisen ensayos posteriores o comprobación del funcionamiento de las instalaciones. En tales casos se fijará el plazo para efectuar los ensayos o comprobaciones y a su finalización el interesado solicitará el permiso definitivo. Durante el indicado plazo se pondrán conceder permisos provisionales de suministro de agua.

Artículo 13.- La existencia de autorización definitiva de vertido será necesaria para formalizar los contratos de suministro de agua a las actividades.

CAPÍTULO II.- INSTALACIONES EXISTENTES

Artículo 14.- Las instalaciones en funcionamiento o que dispongan de licencia de instalación en el momento de la entrada en vigor de la presente ordenanza habrán de ajustarse a los límites y condiciones de vertido de la misma en el plazo de 6 meses, prorrogable por otros 6 meses más si ha sido presentado el proyecto de adaptación y existen razones que así lo justifiquen.

Durante el indicado plazo habrán de respetarse los límites fijados en la normativa vigente con anterioridad.

Artículo 15.- Las actividades a que se refiere el artículo anterior no necesitarán obtener permiso de vertido si ya dispusieran de autorización de funcionamiento y si en el plazo de seis meses presentan al Ayuntamiento un estudio sobre el caudal y su régimen, concentración de sustancias y características para las que se establecen limitaciones en la presente ordenanza, así como las medidas correctoras necesarias para adaptarse a las determinaciones de la presente Ordenanza, tal y como se señala en el artículo 10.

CAPÍTULO III.- MODIFICACIÓN DE INSTALACIONES

Artículo 16.- No podrán autorizarse ampliaciones o modificaciones a instalaciones existentes si no se respetan en el conjunto de las instalaciones ampliadas o modificadas las condiciones exigidas para las nuevas instalaciones.

Artículo 17.- Cualquier modificación que el titular de una instalación desee introducir en las materias primas, maquinaria, proceso productivo, sistema de depuración o de saneamiento que pueda afectar al régimen de vertidos a la red de alcantarillado público en suelo industrial deberá ponerla en conocimiento del Ayuntamiento para autorizarla o imponer en su caso las correcciones oportunas.

Artículo 18.- En todo caso, el Ayuntamiento podrá requerir a las actividades instaladas para que procedan a corregir las deficiencias que hubieran observado a fin de cumplir las exigencias contenidas en la presente ordenanza.

TÍTULO IV.- CONTROL DE VERTIDOS

CAPÍTULO I.- INSPECCIÓN DE VERTIDOS

Artículo 19.- El Ayuntamiento, a través de sus servicios de inspección, ejercerá de oficio o a petición de interesado la inspección y vigilancia periódicas de las actividades que viertan a la red de alcantarillado público.

La inspección y vigilancia alcanzará a las instalaciones de las actividades que puedan afectar a la calidad del vertido, y en especial las arquetas de registro, las conducciones de saneamiento, los procesos productos de vertidos y las plantas de pretratamiento o depuración de aguas.

20. artikulua.- Udal langileek egingo dituzte instalazioak ikuskatzeko bisitak, edo udalak horretarako propio kontrataturiko enpresa batekoak, beharrezkoa den agiria aurkeztuz. Ez da beharrezkoa jardueraren titularrari alde aurretik abisatzea.

Jardueren titularrak behartuta daude ikuskapena erraztera, eta, horretarako, honako hau egin beharko dute:

a) Isurketarekin zerikusia duten instalazioetarako sarrera erraztu ikuskatzaileei, eta ekipoaren muntaketa egiteko eta kontrolerako tresneria jartzeko erraztasunak eman.

b) Enpresak autokontrolerako erabiltzen duen tresneria erabiltzeko baimena eman, hala nola, ur-emariak kanpora ateratzekoak, laginak hartzekoak eta azterketak egitekoak.

c) Ikuskatzaileek eskatzen dizkieten datuak, laneko dokumentazioa eta gainerako edozein informazio eman.

Ikuskapenaren akta egin beharko da, eta ikuskatzailea eta ikuskapenaren arduraduna izango dira aktaren sinatzaileak; informazioa, bestalde, bisiten erregistro-liburuan jasoko da. Iruña Okako Udalak emango du bisiten erregistro-liburu hori, eta jardueraren titularrak gordeta eduki beharko du, eta udal ikuskatzaileen eskura jarri eskatzen dioten bisita bakoitzean.

21. artikulua.- Jardueren titularrak aldiari bidali beharko diote Udalari, isurketaren kutsadura-karga adieraziz. Bertan, isurketaren emaria, kutsaduraren kontzentrazioa, iraupena eta horren definizioarako beharrezkoak diren gainerako datuak jarri beharko dituzte.

Alkateak ezarriko du txostenaren periodikotasuna, Udalak egin dituen ikuskapenen emaitzak eta kutsaduraren karga eta isurketaren emaria kontuan hartuta.

II. KAPITULUA.- ISURKETEN LAGINKETA

22. artikulua.- Jarduera bakoitzak bere saneamendua eduki beharko du, lurzoru industrialeko estolderiara konektatu aurretik; horretarako, lurzati bakarra mantentzen duten pabiloien banaketetan edo lurzati berean dauden eraikin atxikietan, saneamendu bereziak jarri beharko dira eraikuntza-unitate bakoitzerako.

23. artikulua.- Udalaren estolderia-sarera isurketak egiten dituzten jarduera guztiek erregistroko kuxteta bakarra izango dute hondakin-uretarako, eta horrek jasoko ditu denak. Kuxteta horrek lurzatiaren kanpoko aldean egon behar du, ikuskapen zerbitzuak iristeko toki egokian, inolako oztoporik gabe eta garbi, funtzionamendu egokia izan dezan.

Kutxetaren neurriek eta ezaugarriak erraztu egingo dute udalaren zerbitzu teknikoan edo udalak kontrataturiko enpresen lana, laginak jasotzeko unean zein isurketaren emaria neurtzekoan.

24. artikulua.- Ordenantza hau indarrean sartzen denean abian dauden instalazioek sei hilabete izango dituzte ordenantza honetan ezartzen den moduan jartzeko laginak hartzeko kutxetak.

Epe hori urtebetera luza daiteke, zenbait jarduerak komunean dituzten sareak bereizteko obrak egin behar direnean, edo jarduera baten isurketak bateratzeko obrak egin behar direnean, kuxteta bakarra jarri.

25. artikulua.- Jarduera bereziki kutsakorren etengabeko kontrolerako, isurketaren emariak eta kutsadura-kargak hala gomendatzen dutenean, Udalak eska dezake edukiera neurtzeko ekipoak, laginak hartzekoak eta kontrolerakoak jartzeko.

Ekipo horiek jardueraren titularrarenak izango dira, Udalak ego-kitzat jotzen dituen lekuetan jarriko dira eta kontserbazio-egoera onean egon behar dute.

26. artikulua.- Laginak hartzeko teknika aldatu egingo da, isurketak motaren arabera.

Debekatutako isurketen kasuan, lagina momentuan har daiteke; bestalde, saneamenduko instalazioaren edozein puntutan har daiteke, eta edozein unetan.

Onartutako isurketen kasuan, isurketaren azken kutxetan hartuko da lagina, eta ordubeteko iraupena izango du; bestalde, emariaren eta isurketaren denboraren proportzioan egingo da.

Artículo 20.- Las visitas de inspección se girarán por personal municipal o empresa contratada para dicho fin, debidamente acreditado sin que se requiera la previa advertencia al titular de la actividad.

Los titulares de las actividades deberán facilitar la práctica de la inspección, y a tal fin, estarán obligados a las siguientes actuaciones:

a) Facilitar el acceso del personal inspector a las distintas instalaciones relacionadas con el vertido así como el montaje del equipo e instrumental de control.

b) Permitir la utilización de cuantos instrumentos utilice la empresa con la finalidad de autocontrol, especialmente aquellos destinados para aforamiento de caudales, toma de muestras y análisis correspondientes.

c) Poner a disposición de los inspectores los datos, partes de trabajo, análisis y cuanta información requieran en relación con la inspección.

De la inspección se levantará acta que firmarán el inspector y la persona responsable de la actividad en el momento de realizarse la inspección y se hará constar en el libro registro de visitas. El libro registro de visitas será facilitado por el Ayuntamiento de Iruña de Oca y el titular de la actividad deberá guardarlo y ponerlo a disposición de los inspectores municipales cuando así se lo soliciten en cada visita.

Artículo 21.- Los titulares de las actividades deberán remitir al Ayuntamiento un informe periódico en el que se señale la definición de la carga contaminante que viertan y se incluirán los caudales de vertido, la concentración de contaminantes, la duración, y demás elementos necesarios para su definición.

La periodicidad del informe será establecida en cada caso por la Alcaldía en atención a los resultados de las inspecciones practicadas por el Ayuntamiento y de los niveles de carga contaminante que se comprueben, y del caudal vertido.

CAPÍTULO II.- MUESTREO DE VERTIDOS

Artículo 22.- Será obligatoria la existencia de saneamiento independiente para cada actividad hasta conectar con la red municipal de alcantarillado en suelo industrial; y a tal fin, en las operaciones de división de pabellones existentes manteniendo la unidad parcelaria o en las edificaciones adosadas en una misma parcela habrán de establecerse saneamientos independientes para cada una de las unidades edificatorias.

Artículo 23.- Todas las actividades que viertan a la red municipal de alcantarillado, dispondrán de una única arqueta de registro para aguas residuales, que recoja todas aquellas provenientes de la actividad, y que deberá estar situada fuera de su parcela, en lugar accesible para los servicios de inspección, libre de todo obstáculo y encontrarse en adecuado estado de limpieza para su función.

Sus dimensiones y características deberán ser tales que permitan a los servicios Técnicos Municipales o empresa contratada para dicho fin tanto la recogida de muestras como la determinación del caudal vertido.

Artículo 24.- Las actividades en funcionamiento a la entrada en vigor de la presente Ordenanza dispondrán de un plazo de seis meses para la instalación de la arqueta para toma de muestras en las condiciones establecidas en la presente Ordenanza.

Dicho plazo se ampliará a un año para aquellas actividades que precisen realizar obras de independización de redes de saneamiento común a varias actividades, o que precisen realizar obras para unificar los vertidos de una sola actividad en una única arqueta.

Artículo 25.- Cuando el caudal y la carga contaminante del vertido lo hagan aconsejable para un control continuo de determinadas actividades especialmente contaminantes, el Ayuntamiento exigirá la instalación de los equipos de medición de aforo, toma de muestras y control precisos.

Estos equipos que serán propiedad de los titulares de las actividades y se montarán en el lugar que el Ayuntamiento señale deberán estar en adecuado estado de conservación.

Artículo 26.- La técnica en la toma de muestras variará según la determinación a realizar.

Para vertidos prohibidos la toma de muestras podrá ser instantánea, tomada en cualquier punto de la instalación de saneamiento y en cualquier momento.

Para vertidos tolerados la toma de muestras se realizará en la arqueta final de vertido, y tendrá una duración mínima de una hora y proporcional al caudal o al tiempo de vertido.

III. KAPITULUA.- ISURKETEN KONTROL ANALITIKOA

27. artikulua.- Udalaren ikuskapen-zerbitzuek edo udalak kontraturiko enpresenak jasotzen dituzten laginak udalak egoki jotzen dituen lekuetan aztertuko dira.

28. artikulua.- Interesduna hasierako azterketaren emaitzekin ados ez badago, berak duen laginaren kontraanalisia egin dezake, baina behar bezala zigilatuta egongo da lagin hori.

Horretarako, interesdunak zortzi egun izango ditu, udalak egin-dako azterketaren emaitza jasotzen duenetik kontatuta, lagina homologatutako laborategi batek edo Udalak alde aurretik ontzat emandakoak onartu duela adierazteko.

Laborategia homologatua denean, interesdunak hilabete izango du, hasierako azterketaren emaitzaren jakinarazpenetik kontatuta, emaitzak Udalean aurkezteko. Epe horretan bestelako emaitzarik aurkezten ez bada, hasierako emaitza joko da ontzat.

29. artikulua.- Hasierako azterketaren eta kontraanaliaren emaitzak bat ez badatoz, ordenantza honetan jasotzen diren isurketarako baldintzei eta mugei dagokienez, azterketa erabakigarria egingo da.

Azterketa hori Udalak ezartzen duen laborategi homologatu batean egingo da, edo udalak eta interesdunak adosten duten batean, nahiz eta homologatu gabe egon.

Udalak duen laginaren gainean egingo da azterketa, 26. artikulua jasotzen duen prozedurarekin bat etorritz.

Azterketa horren emaitzek ezarriko dute ordenantza honen mugak bete diren ala ez. Azterketaren kostua, bestalde, azterketaren emaitzarekin bat ez datorrena aurkeztu duen interesdunak ordainduko du.

30. artikulua.- Isurketaren azterketekin zerikusia duten gastu guztiak araua hautsi duenaren kontura joango dira.

V. TITULUA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

31. artikulua.- Ondorengo hauek hartuko dira ordenantza honen aurkako arau-haustetzat:

a) Instalazioak egiteko eta jarduera abian jartzeko baimenik ez izatea.

b) Isurketarako baimenik gabe estolderia-sarea erabiltzea.

c) Ordenantza honetan jasotzen diren neurri zuzentzaileak hartzean, edo oztupoak jartzea edo berandu hartzea.

d) Jarduerak ez egokitzea, beharrezkoa den epean, 15. eta 24. artikuluek ikuskapen egokirako ezartzen dituzten baldintzetara.

e) Debekatutako tresnak edo itxitako instalazioak abian jartzea.

f) Debekatuta dauden edo tolerantzia-mugen gaintik dauden isurketak botatzea, bai eta 8. artikuluan aldiro isurketetarako ezartzen diren mugak gaintzea ere.

g) Estolderia-instalazioetarako edo arazketarako larrialdi-egoeraren edo arriskuaren berri udalari ez ematea, bai eta larrialdi-egoera edo arriskua gertatu ondoren egin behar diren txostenak ez bidaltzea ere.

h) Ordenantza honetan jasotzen diren mugak gaintzen dituzten deskargak gutxitzeko neurriak ez hartzea.

i) Ikuskatzaileak ordenantza honetan jasotzen dena betetzen den aztertzer doazenean, horien lana oztopatzea.

j) Isurketaren instalazioak onik ez mantentzea; horrela, ikuskatzaileen lana oztopatuz.

32. artikulua.- Arau-haustek 90 eurotik 30.000 eurora bitarteko isuna izango dute, eta instalazioak aldi baterako edo behin betiko ixtea.

Instalazioaren aldi baterako edo behin betiko itxiera hiru isunen ondoren bakarrik ezar daiteke.

Hala ere, egin den arau-haustea jarduera burutzeko baimenik ez izatea bada, itxi egin daiteke instalazioa, horretarako beharrezko baimenak iritsi arte.

33. artikulua.- Zigorra instalazioa ixtea bada, jardueraren ur-horridura eten egingo da, aldi baterako edo behin betiko, edo itxiera aurreikusten den denborarako.

CAPÍTULO III.- CONTROL ANALÍTICO DE VERTIDOS

Artículo 27.- Las muestras recogidas por los servicios municipales de inspección o empresas contratadas para dicho fin se analizarán inicialmente donde el Ayuntamiento lo crea necesario.

Artículo 28.- En caso de disconformidad con los resultados de la muestra inicial, el interesado podrá realizar un análisis contradictorio con la muestra que obra en su poder debidamente precintada.

A tal fin el interesado dispondrá de un plazo de ocho días desde la recepción de los resultados obtenidos por el ayuntamiento para notificar que un laboratorio homologado o admitido previamente por el Ayuntamiento ha aceptado la muestra.

Cuando el laboratorio fuera un laboratorio homologado el interesado dispondrá de un plazo de un mes desde la notificación del análisis inicial para presentar al Ayuntamiento los resultados analíticos. Si no se presentara el análisis en dicho plazo se estará al resultado del análisis inicial.

Artículo 29.- Caso de que los resultados del análisis inicial y del contradictorio no sean coincidentes en cuanto al cumplimiento o no de los límites de vertido fijados en ésta Ordenanza se procederá a la práctica de un análisis dirimente.

Este análisis se practicará en el laboratorio homologado que designe el Ayuntamiento o en aquél que sin estar homologado acuerden el Ayuntamiento y el interesado.

El análisis se realizará sobre la muestra dirimente precintada que obre en poder del Ayuntamiento conforme al procedimiento a que se refiere el artículo 26.

Los resultados de este análisis determinarán el cumplimiento o incumplimiento de los límites de la presente Ordenanza, siendo su coste abonado por aquél que presente un análisis que no coincida con el análisis dirimente.

Artículo 30.- Todos los costes relacionados con las analíticas de vertido correrá a cargo del infractor.

TÍTULO V.- INFRACCIONES Y SANCIONES

Artículo 31.- Se considerarán faltas a la presente ordenanza las siguientes infracciones:

a) La carencia de autorizaciones o permisos para el ejercicio de la actividad y puesta en marcha de las instalaciones.

b) La utilización de la red de alcantarillado sin la autorización de vertido.

c) La resistencia o demora en la instalación de los elementos correctores que hubieran sido exigidos en aplicación de la presente ordenanza.

d) El incumplimiento de los plazos de adaptación de las actividades existentes a las exigencias que para una adecuada inspección se establecen en los arts. 15 y 24.

e) La puesta en funcionamiento de aparatos o instalaciones prohibidos o clausurados.

f) La emisión de vertidos prohibidos o que incumplan los límites para su tolerancia, así como la superación de los límites fijados para vertidos periódicos o esporádicos en el artículo 8.

g) La falta de advertencia al Ayuntamiento de la existencia de una situación de emergencia o de riesgo inminente para las instalaciones de alcantarillado o depuración, así como la falta de remisión del oportuno informe posterior a la situación de emergencia o riesgo.

h) La omisión de las medidas procedentes para disminuir las descargas accidentales por encima de los límites de la presente Ordenanza.

i) La obstaculización de la labor inspectora en relación con la vigilancia del cumplimiento de la presente Ordenanza.

j) La falta de mantenimiento de las instalaciones de vertido que dificulten las labores de inspección.

Artículo 32.- Las faltas serán sancionadas con multa desde 90 euros hasta 30.000 euros y clausura temporal o definitiva de las instalaciones.

La sanción de clausura temporal o definitiva sólo podrá ser impuesta tras la imposición de tres multas.

No obstante, si la falta cometida fuera la carencia de autorizaciones o permisos para el ejercicio de la actividad se podrá imponer la clausura hasta que se obtengan las autorizaciones que fueran exigibles.

Artículo 33.- La sanción de clausura llevará implícita la suspensión temporal o definitiva en el suministro de agua a la actividad de que se trate o por el tiempo en que dicha clausura sea acordada.

34. artikulua.- Zigorrek ezartzeko prozedura Jarduera Gogaikarri, Kaltegarri, Osasungaitz eta Arriskutsuei buruzko Erregelamenduak ezartzen duena izango da.

35. artikulua.- Udalari bere ginetik dagoen erakunde batek jarritako zigorrek edo isunak beste norbaiti ordainaraziko diezazkioke udalak, arau-hauslearen erruduna nor den frogatzen bada. Horretarako, ikuskatzaile baten edo kontrataturiko enpresaren txostena behar da.

36. artikulua.- Zigorra jasotzeko ez du baztertzen egindako kaltea konpondu beharra. Era berean, udal instalazioetan eragindako kaltearen erantzukizuna ere izango du arau-hausleak.

37. artikulua.- Oin berriko eraikinetan edo pabiloietan ezartzen diren jardueren saneamendurako sare bereiztuak jartzea. Euri-uren, ur beltzen edo industriako uren sarea ezartzea, bakoitza berari dagokion kutxetarekin, eta biak kutxeta bakar batean amaitzea.

38. artikulua.- AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hauetan berariaz jasota ez dagoena, honako hau baino goragoko arautegiaren menpe geratuko da.

Ordenantza hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta 15 egunera sartuko da indarrean, eta indarrik gabe geratuko dira bertan jasotzen diren xedapenen aurka edo horiekin kontraesanean dauden gainerako guztiak.

Iruña Oka, 2005eko apirilaren 15a.- Alkate-lehendakaria, JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ.

VITORIA-GASTEIZ

UDALEKO HEZKUNTZA SAILA

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Arloa

2.819

Udako programaren baitako jolas txokoetarako laguntza teknikoa kontratatzeke lehiaketa.

2005eko apirilaren 15ean onetsi zen 2005/CONASO0093 zk. duen kontratazio dosiera, 2005EKO UDAKO PROGRAMAREN BAITAKO JOLAS TXOKOETARAKO LAGUNTZA TEKNIKOA esleitzeko baita.

781/86 Errege Dekretuaren 122. artikulua ildotik, jendaurrean egongo dira onetsitako baldintza-orriak, 8 egunez, Gasteizko udal txeko Erregistro Nagusian -Espainia plaza, 1 behe-, interesaturik dagoen orok horiek aztertzerik izan dezan, eta, orobat, behar izanez gero, erreklamazioak aurkezterik. Udalbatzarrak ebatziko ditu erreklamazio horiek, eta halakorik aurkezten ez bada, berriz, behin betiko onetsitakotzat joko dira baldintza-orriak.

Aldi berean, kontratu hori esleitzeko lehiaketa iragartzen da, nahiz eta lehia atzeratu egingo den beharrezko gertatuz gero, hots, baldintza-agiriaren kontrako erreklamazioak aurkezten bada.

2005EKO UDAKO PROGRAMAREN BAITAKO JOLAS TXOKOETARAKO LAGUNTZA TEKNIKOA KONTRATATZEKE LEHIAKETA

1.- XEDEA: 2005/CONASO0093 zk. duen dosiera, 2005EKO UDAKO PROGRAMAREN BAITAKO JOLAS TXOKOETARAKO LAGUNTZA TEKNIKOA esleitzeko.

2.- LEHIA-SARIA: 22.656,00 euro, BEZ barne. Behera eginez hobetu ahal izango dute hori lehiakideek.

3.- GAUZATZE-EPEA: 38 egun.

4.- BERMEAK:

Behin-behinekoa: Ez da eskatzen.

Behin betikoa: kontratu prezio osoaren % 4.

5.- KONTRATISTAREN SAILKAPENA: Ez da eskatzen.

6.- DOSIERRA AZTERTZEA: Gasteizko Udaleko Hezkuntza Sailean aztertu ahal izango dira dosierrak -Frai Zacarias Martinez kalea, 3-1. solairua; Gasteiz; tel.: 945 161 216, faxa: 945 161 220-, iragarkia Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN agertu ondorengo lehen lanegunetik hasi eta eskaintzak aurkezteko epea bukatu bitartean.

Helbide honetan ere aztertu ahal izango dira: <http://www.vitoria-gasteiz.org/>

Artículo 34.- El procedimiento para la imposición de sanciones será el regulado en el Reglamento de Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas.

Artículo 35.- El ayuntamiento podrá repercutir el importe de las sanciones o multas que le sean impuestas por otra institución superior siempre y cuando que se demuestre previo informe del inspector o empresa contratada para dicho fin el culpable de la infracción.

Artículo 36.- La imposición de sanciones no excluye la obligación del titular de la actividad de reparar el daño causado y de responder de los daños que se produjeran a las instalaciones municipales.

Artículo 37.- Instalación de redes separativas de saneamiento para las actividades que se implanten en edificios o pabellones de nueva planta. Establecer una red de pluviales, otra de fecales o industriales cada una con su correspondiente arqueta, y que ambas concluyan en una arqueta final.

Artículo 38.- DISPOSICIÓN FINAL

Quedará a sometimiento de la normativa de rango superior todo aquello que no venga recogido expresamente en estas ordenanzas.

Esta Ordenanza entrará en vigor a los 15 días de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, quedando derogadas cuantas disposiciones municipales se opongan o contradigan sus preceptos.

En Iruña de Oca, a 15 de abril de 2005.- El Alcalde-Presidente, JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ.

VITORIA-GASTEIZ

DEPARTAMENTO MUNICIPAL DE EDUCACIÓN

Área de Educación, Cultura y Deporte

2.819

Concurso de asistencia técnica para la realización de Rincones de Juego 2005, Programa Vacacional.

El día 15 de abril de 2005 se aprobó el expediente de contratación con número 2005/CONASO0093 de ASISTENCIA TÉCNICA PARA LA REALIZACIÓN DE RINCONES DE JUEGO 2005, PROGRAMA VACACIONAL.

De conformidad con el artículo 122 del Real Decreto 781/86 los pliegos de condiciones aprobados quedan expuestos al público durante el plazo de 8 días en el Registro General del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz sito en la Plaza de España número 1 bajo a efectos de examen por parte de los interesados, y en su caso de presentación de reclamaciones que serán resueltas por la Corporación, quedando los pliegos definitivamente aprobados en caso de que aquellas no se produzcan.

Simultáneamente se anuncia concurso para la adjudicación de los mencionados contratos, si bien la licitación se aplazará cuando resulte necesario en el supuesto de que se formulen reclamaciones a los pliegos de condiciones.

CONCURSO DE ASISTENCIA TÉCNICA PARA LA REALIZACIÓN DE RINCONES DE JUEGO 2005

1º.- OBJETO: Expediente con número 2005/CONASO0093 para ASISTENCIA TÉCNICA PARA LA REALIZACIÓN DE RINCONES DE JUEGO 2005, PROGRAMA VACACIONAL.

2º.- TIPO DE LICITACIÓN: 22.656,00 euros, mejorable a la baja por los licitadores IVA, incluido.

3º.- PLAZO DE EJECUCIÓN: 38 días.

4º.- FIANZAS:

Provisional: No se exige.

Definitiva: 4% del precio total del contrato.

5º.- CLASIFICACIÓN DEL CONTRATISTA: No se exige.

6º.- EXAMEN DEL EXPEDIENTE: Los expedientes podrán ser examinados en el Departamento de Educación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, sito en la calle Fray Zacarias Martinez número 3-1ª Planta, Vitoria-Gasteiz, teléfono 945 161 216, Fax 945 161 220, desde el día hábil siguiente a aquél en que aparezca en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y hasta el plazo de presentación de proposiciones.

Asimismo también podrán ser consultados en: <http://www.vitoria-gasteiz.org/>